

Bonberenea, suhiltzailerik ez baina adimen piztaile ugari

Tolosako Bonbereneak lehenengo urtemuga bete du. Kontzertuak, antzerki saioak, ikastaroak, lan taldeak eta abar antolatu ditu denbora honetan guztian. Helburua da gazteek euren proiektuak gauza ditzaten eta irudimena astin dezaten.

Jon Maya

Ez diote gaztetxe deitu nahi, «bertan sortzen den ekimenekin interesatuta dagoen edonorentzat irekita egotea nahi baitugu, adin mugarik ipini gabe», Lander Zabalzaren esanetan. Horregatik, etxeak Bonberenea izena bakarrik du, eta bertan jarduten den batzar irekia Bonbereneko Asanblada da.

Bonbereneak urtea bete du orain dagoen etxean, baina aurretik beste hiru egoitza hartzen saiatu zen. Aurreko etxeetan ekintzak antolatzeko astirik ere ez zuten izan Asanbladako ki-deek, baina azken urte honetan makina bat ekitaldi antolatu dituzte. Kontzertuak ugari egin dituzte, antzerki saio batzuk eta hitzaldiren bat edo beste ere bai. Astero-astero film bat ematen dute, inguruko beste herri batzuekin batera proiektore bat erosi eta zine-kluba osatu baitute; ikastaroak ere mordo bat egin dituzte, besteak beste, elikadura mikrobiotikoari buruzkoa, malabarismoena, perkusioarena, oihala koloreztatzekoa... Eta horretaz gain, baratzetako eta skate-an aritzeko lan taldeak osatu dituzte.

Lander Zabalzaren esanetan, «bakoitzak duen jakinmina, ezagutza edo proiektua aurrera ateratzeko gunea» da Bonberenea. Elkarren arteko harremanetan oinarritutako bizikidetzak bultzatu nahirik, ez dute ekin-tzetan era pasibo batean parte hartu nahi: «Udaletxean esaten

Eta orain gela bat ere prestatu nahi dute, ohatzeekin, kontzertuetara kanpotik etortzen diren taldeentzat. Argi dago eskularen oso abila den jendea jarduten dela Bonberenean. Heldu zirenean, «zuri-beltzean» zegoela guztia dio Landerrek, eta orain grafitiekin koloreztatuta eta oso itxura onarekin dago guztia: «Hemen

Azkenean, leku finkoa

Bonberenea etxeak urtebete egin du egungo lekuan, baina etxe horrek badu istorio luze eta korapilatsuagoa.

Gazte Asanblada moduan lehenengo aldiz 1996. urte inguruan hasi zen mugitzen gazte koadrila bat. Haien ahalegina ekintzak antolatzeko zen batez ere, baina horretarako ia ezinbestekoa zitzairen lokal bat izatea. Udalarekin zituzten harreman guztietan, baina, ahalegina ezerezean geratzen zen, eta mugimendua apurka-apurka banatzen hasi zen.

1997. urtean, berri, okupazioaren gaiaren inguruan gogoeta egiten hasi zen herri gazte talde bat, eta mugimendu hori indartsuagoa egin zenean urratsak egin eta aurretik beste bide batzuetatik lortu ez zutena okupazioaren bidez eskuratzen saiatu ziren. Hor ere hamaika gorabehera izan zituzten.

1997. urteko abenduaren 15etik 22ra bitartean hiru etxe okupatzen saiatu ziren, baina guztietatik kanporatu zituzten. Lehenengo suhiltzaileen etxea izandakoa saiatu ziren —horregatik deitzen da Bonberenea—. Bertan abenduaren 15ean sartu ziren, baina bertan aste bat egin eta kanporatu egin zituzten. Gainera, zenbait lagun ere atxilotu zituzten kanporatu zituztenean, eta horrek egoera larritu egin zuen. Handik egun batzuetara Igarondo zinema zaharrean saiatu ziren. Hor, ordea, egun bat besterik ez zuten egin. Baina beste aukera bat ere bazuten pentsatuta aldeztu aurretik. Goizean batetik kanporatu, eta arratsaldean euskaltegi zaharrean sartu ziren. Hor hogeit egun pasatxo egin zituzten. Kanporatzearekin batera, baina, mugimendua apur bat hoztu egin zen, eta ahalegin gehiago ez zituzten egin iragan urtera arte.

Iaz, hauteskundeak igaro ostean, lokal bat eskuratzeko premiaren inguruan mintzatzen hasi ziren berriro ere. Udalarekin harremanak baziren, baina geldoak zirenez, etxea eurek topatu eta bertan Bonberenea berri sortzen hastea erabaki zuten.

Etxea Udalarena da eta lur eremua ondoko etxe batena, baina nola edo hala moldatu ziren guztiekin, eta orain eurek erabiltzen dute. «Badakigu inoiz etxea botako dutela, beste etxe batzuk egiteko proiektua baitute, baina udaletxean hiruzpalu urtez iraun dezakegula esan digute», azaldu digu anderrek. Bitartean, Bonbereneak badu leku bat.

Lander Zabalza: «Bakoitzak duen jakinmina, ezagutza edo proiektua aurrera ateratzeko gunea da Bonberenea»

ziguten Kultur Etxean antolatzaren zirela ikastaroak, baina guk ez dugu nahi izena eman, ordaindu eta kito; lan egiteko beste modu bat bultzatu nahi dugu, partaidetzan oinarrituta».

Itxura zein kokaleku aldetik, edozein gaztetxe edo gaztelekuk nahiko lukeena da Bonberenea. Kanpo aldean baratza eta leku nahiko handia ditu. Barrualdean, berri, kontzertuetarako aretoa, txosna eta skate-zone-a beheko solairuan. Eta goikoan, sukaldea, egonlekua, bazkariak eta egiteko beste gela bat, liburutegia, kartelak egiteko gela eta terraza.

lan handia egin dugu; margotu, lurra konpondu, kanpoaldea txukundu... Beste leku asko nola dauden ikusita zortea izan dugu, baina lana ere egin dugu».

Oso esperientzia aberasgarria gertatzen ari zaiela deritzo Landerrek: «Pertsona bezala heldu egiten zara, konturatzen zara ekintzak nola antolatzen diren, asko ikasten duzu, eta besterik gabe kaletik ezagutzen duzun jendearekin ere harremanak dituzu». Beste herri edo taldeei benetan merezi duela horrelako gune batean jardutea adierazi nahi diete Bonbereneko gazteek.



▲ edurne koch

TEMERIAS
GASTEIZ

bar TALPA

**XABIER
TABERNA**

Kutxi. 23
GASTEIZ

ZURE KREPE AFALTZEKO

hala bedi

TABERNA

Kutxi izkina
Santa Maria kantoiarekin
CARA VAINA!!